



LIBURUA

# Arrazakeriak ez ditu suntsitu



## BARBARO IRAUN

LOUISA YOUSFI

TXALAPARTA, 2023

AMAIA ALVAREZ URIA

2022an Louisa Yousfik argitaratu zuen *Rester barbare* lana, eta Itziar Diez de Ultzurrunek eta Txalapatark euskaraz plazaratu zuten 2023an, Ainhoa Nadia Douhaibiren hitzostearekin. Aspaldi ez nuela hainbeste azpimarratzen liburu bat.

Euskaldunen barbarizazio prozesuari buruz aritu zitzaigun Ibai Atutxa due-la gutxi, baina oraingoan arraza dago tartean, "mairu-musulmanaren askakuntza"-ri buruz dihardu egileak lan honetan.

Bitxia da zein hurbil eta zein urrun dagoen Euskal Herri Hegoaldetik Frantziar errepublika. Hemen, oro har, hango errealitatea oso gutxi ezagutzen dugula esango nuke, eta liburu honetan bertako *barbaro* batzuen berri ematen da. Zehazki, zibilizatuak eraikitako per-

tsona ez-zurien imajinario arrazista dekolonizatzen lagundu diezaguke lan honek. Egileak dioenez: "Artxibozain eta idazlari garelarik, gure jardunaren ahalegin guztiak gure jendea zikindu duen estigma garbitzera bideratuko dira, gutarrak estereotipotik haratago irudikatzeraz".

Yousfi integrazioaren arriskuez ariko zaigu ("unibertsaltasun deserrotua") eta erresistentziarako deia egingo du hasieran. Jarraian, Mendebaldeko gaizkileen eta Inperioaren munstroen irudikapenak aztertuko ditu, eta Pariseko aldirietan zuria ez izatea zer den adieraziko du, nagusiki, rap talde pare baten jarduna eta ahotsa ekarrita. Azkenik, emakumeen parte hartzeaz gogoeta egingo du eta Douhaibik auzi hau Euskal Herrira hurbilduko du gibel solasean.

Palestinako genozidioa etorriko zaio gogora, agian, irakurleari. Batez ere hurrengo irakurrita: "Gaur egun objektu mairu-musulmanaren askakuntza da gerra iraunkorra eta azpiratze inperiala funtsatzen dituen eragile nagusia energia-baliabideetan oparoak diren eta gure bizitzak aurrerapen teknologikoz zein neurritz kanpoko kontsumoz hornitzen dituzten lurraldeetan".

Azpiratuen arteko konplizitatearekin batera, zurtasuna landu behar dugu euskaldunok (zapalduak eta pribilegiadunak garen heinean) eta liburu honek bide hori urratzen lagundu ahal digu: horretarako eutsi beharko diogu konplizitate-parallelismoak –soilik– egiteko tentazioari eta gure botere-kokapenetik irakurri liburu honetako hitzak. Deseroso, kontziente eta gogoetatsu. ●